

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2015/01/21 HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 19:00 - 19:10	TOKIA Udaletxea
--	--------------------

BILDUTAKOAK:

Lehendakaria: Inazio Azkarragaurizar Larrea (BILDU)

Zinegotziak: Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)
Ander Rodriguez Lejarza (BILDU)
Josebe Landaluze Ruiz de Alegria (BILDU)
Josu Pereda Leceta (BILDU)
Maidor Morras Azpiazu (BILDU)
Omer Arregi Biain (BILDU)
Iratxe Zeziaga Mendizabal (BILDU)
Juan Antonio Barriocanal Arrieta (BILDU)
Joseba Erramun Askasibar Zendoia (BILDU)
Joxe Etxeberria Iztueta (ARALAR)

BILDU EZ DIREN
UDALKIDEAK:

Kepa Urteaga Garcia (BILDU)
Juan Carlos Garitano Ezcurra (EAJ-PNV)
Maria Ubarrechena Cid (EAJ-PNV)
Ibon Arrupe Aldecocea (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Aritz Arrieta Kabiketa (PSE-EE)
Francisco Garcia Raya (PSE-EE)
Miren Lorea Lana Jauregi (PSE-EE)
Iciar Lamarain Cenitagoya (PP)

BERTARATZE ETA
IRTEERAK:

Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Etorri diren herritar guztiei eskerrak ematea. Pena da giza eskubideen defentsarekin adostasuna erakusten dutenak gaur hemen ez izatea, baina hasiera emango diogu gaurko Plenoari.

1.- MOZIOA ONARTZEA, BILDU ETA ARALAR UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKOA, “Giza Eskubideen defentsa, denon ardura” IZENBURUA DUENA

Idazkariak BILDU ETA ARALAR udal taldeek aurkeztutako ondoko mozioa irakurri du:

“IOSU URIBETXEBERRIA BOLINAGA arrasatearra joan zen urtarrilaren 16an zendu zen, 59 urte zituela. Heriotza honen aurrean, Arrasateko Udalak bat egin nahi du bere familiaren saminean/atsekabeen, eta bere elkartasuna adierazi une latzotan.

Iosu hiltzera zihoala jakina zen. Bere gaixotasunaren jarraipena egin zuten mediku guztiek behin eta berriz adierazi zuten; bai berari zuzenean, bai bere familiari eta baita indarrez espetxeratuta mantendu duten arduradun politiko eta instituzional guztiei. Josuk pairatzen zuen gaixotasun larriari behar bezalako jarraipena egitea bateraezina zen espetxean egoteaz. Aitzitik, arduradun politiko-judizialek azken uneraino luzatu zuten bere egonaldia kartzelako bizi-baldintzak muturreraino eramanez. Herri presioa tarteko kaleratzea lortu zen. Zoritxarrez, kalean igarotako denboran ere mota guztietako irainak, jazarpenak eta oinarrizko eskubideen bortxaketak pairatu zituen. Beraz, Madrilgo arduradun politikoek hala erabakita, giza eskubideen oinarrizko zutabeak urratu eta Iosu Uribetxebarria Bolinagak zigor gehigarria pairatu zuela esan daiteke.

Nazioarteko eta estatu espainiarreko araudi, zuzenbidearen printzipio eta giza eskubideen aldeko aldarrikapenek, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona preso guztien eskubideak errespetatzeko beharra adierazten dute. Honenbestez, oinarrizko eskubidea da gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona horiek beharrezkoa duten tratamendua eta zaintza medikua behar bezalako baldintzetan jasotzea. Zoritxarrez, losuren kasuan berme horiekin behin eta berriz jolastu zen, pertsonaren integritatea mugaraino eramanez.

Egun badira oraindik Iosu bezala oso gaixorik eta kartzelan jarraitzen duten presoak. Egoera horrek euren egoera fisikoa eta senitartekoen ezinegona okertu eta areagotzen du. Pertsona gisa eta preso gisa zor zaizkien eskubideak ukatuz.

Arrasateko Udalak, pertsona guztien giza eskubide guztiak defendatzen ditu. Horrexegatik, espainiar estatuak abiarazitako espetxe politikak dakartzan salbuespen egoerak amaitzea aldarrikatzen du. Egoera hau bere horretan mantentzea beti izan da bidegabea, zentzugabea eta onartezina. Are gehiago orain, Euskal Herrian zabaldu berri den aukeraz betetako errealitate berri honen aurrean.

Gauzak horrela, salbuespenezko espetxe politika honekin eta sakabanaketarekin amaitzea eskatzen dugu, herri honetan gehiengoak aldarrikatzen duenarekin bat eginez. Sakabanaketa eta espetxe politika honekin amaitzeko garaia da. Horretarako, eskaera hau luzatzeaz batera, inoiz baino beharrezkoagoa ikusten dugu eskubide guztien alde egiten dugunon indarrak batzea sufrimenduaren soka luze honekin lehenbailehen amaitzeko.

Hori guztia kontuan izanik, Arrasateko Udalak honako ebazpen hau onartzen du:

- 1.- Iosu Uribetxeberria Bolinagaren familiari gure elkartasuna adierazi.
- 2.- Gaixotasun sendaezinak nozitzen dituzten preso guztiei legez aurreikusten zaizkien berme eta eskubide guztiak errespetatzea exijitzen du. Bide batez, askatu ditzatela dagozkien tratamendu eta asistentziak jaso ditzaten.
- 3.- Azkenik, gai honetan erantzukizunak eta ardurak izan ditzaketen instituzio guztietara mozio hau bidaltzeko konpromisoa hartzen dugu. "

INAZIO AZKARRAGAUZAR (Lehendakaria): Interbentziorik?

PUBLIKOTIK (Herritar bat): PSOE edo PP moduko alderdi faxistak gaur hemen ez egotea ulergarria da, baina giza eskubideen defentsarekin ahoa betetzen duen PNV ez egotea harrigarria egiten zait.

INAZIO AZKARRAGAUZAR (Lehendakaria): Bozketara pasatuko gara. Eskerrik asko guztioi bilkura honetara etortzeagatik

Bozketaren emaitza: **MOZIOA AHO batez ONARTUA izan da.**

Bertaratutakoak	11	
Aldeko botuak:	11	BILDU (10) eta ARALAR (1)

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 19:10etan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jaso.

Arrasaten, 2015eko urtarrilaren 21ean

IDAZKARIA

Iñigo Garitano Larrañaga

LEHENDAKARIA

Inazio Azkarragaurizar Larrea